

POEMA BELTZAREN ARBOLA

Ugiñak ondar tristean
ahantzi duten txirla baiño tristeago.
Ez dakit nun dudan galdu
fede gozo aren gozoa,
ez dakit nun dudan galdu.

Ai, umetako fedearen
sinismen bigun aren misterioa...

Jaurtitzen zaitudan fede,
amagandiko arnas triste,
adio betiko .
Zurekin bizi naiz triste,
areago menturaz zu gabe!
Adio betiko, fede adiskide.

Eriotzaren arbola gorria

1

Sortu zen gaua nire baitan
aoan kabitu ala,
beltzaren zapore lodia
sentitzen nuala.
Begira nazazu, aita!

Oi gaupean kanposantua,
piñu melarren gosea
ta zeru-min santua,
gaupe kanposantuan.

Ikusazu mortuan diztiraz
leoi akabatuaren
ezur igar eta gorria.
Oi, gauaren andia...

Ontasunezko bulzu argitsu biguna
begietatik jausten zitzaizuna,
erre itzali da.

Oro lanbro
zugan goizero jaiotzen
itsasoaren —asmatu nuen—
ames urdin luzea,
oro lanbro ta negar illunen.
(Illargiaren adu gardena
potxingoetan usteltzen.)

Bizitzaren mendietan,
arkaitz ta arroketan,
zorionaren itur-begia
nekien, oraindik
ume ta on nintzanetan

Orain, gau oskarbietan,
igelak eta nik
dugu bakarrik maitatzen!
iturri turbustua.

3

Zein ordu da, zein ordu?
Joan ezkeroz, Jainkoa
itzuli ez denekoa.
Ta ausaz agonia.

Zein ordu da?...

Itsasoaren ondoan
geldi itsasbelarrak
lo berde itoan.
Ez da Jainkorikan.

4

Utzi zabalik eskuen
zabaldura,
nire gogoan geldiro
ernetzen tristura
belarren modura.

Udazken arrats odoldu ezti
entzuidazu biotza,
pago ostoan osto naiz
orbel erorietan lotsati.
Zerraldo, eskuak zabalik,
estrata zaharrean
biotza urturik
betiko loan jausirik.
Ordua bezala,
tantonka, tantonka,
aundizki ta geldi

ordua torretik,
bezala aletzen naiz
eriotzaren azpitik.

Orduaren burnia, bai,
orduaren burnia,
ta orduzko bizitza
ezin eutsia.

5

Zein ordu da, Jauna?...

(Negar lurruna dari
ta dausez intziri
atzerri negar batek
ixilki...)

Ordua,
zergatik ordua
gizonok iltzeko,
zein ordu, ba, Jauna?

Bizitzaren arbola beltza.

1

Goian izarrak bizitza zuri,
aztoreak mendian arkaitzezko
Gizonak, aldiz, munduan
bizitza gizonezko.
Ain da gizona gizon...

Ez du jaten illargirik
zapoak potzuan,
dagoenean kantari
gau barruan.

ARESTI'RRI

Zori,
ez argi,
ez garbi.
Mundua geuri,
edo geu munduari.
Nor nori?
Garaia izlari.

Mundua
ezta gure biran,
baizik gu
bere jiran.

Utsean.
Len utsean,
orain zerbaitean
ta geroan
berriz utsean?

Otsalar